



Leinua elkartearen helburu kulturalaren laburpena hitz gutxitan, euskal dantza eta musikaren jakinaraztea eta distira laguntzea da. Elkarteak lau sailetan banatua da:

- ✓ Leinua Eskola: 6 urte eta goragoko 130 haur biltzen dituen dantza eskola da.
- ✓ Leinua Konpainia: Leinua Dantza taldeko 30 bat dantzarik euskal dantzaren bizitasuna eta gaurkotasuna defendatzen dute.
- ✓ Txaranga Leinua: Mutxikoetan eta beste euskal dantza sozialetan adituak diren hamar bat musikarik osatutako taldea da.
- ✓ Leinua "Folk": Beste sorleku batzuen errepertorioak (Biarno, Gaskonia...) ikasi nahi dituzten hamarbat dantzarik osatzen duten taldea.

Hiriburu, Mugerre eta Milafrankako Herriko Etxeek dirulaguntza ematen diote Leinua elkarteari, eta proiektu batzuen kari, baita Euskal Kultur Erakundeak ere.



Musika herrikoiaren dokumentazio zentro gisa, Soinuenea Fundazioa erreferentzia da. Azken hogeita urteetan fundazioak antolatutako kontzertu ugari bitartez musika herrikoiaren zabaltze lan handia egin du.

Bestalde, instrumentu herrikoiak biltzen dituen eta gaur arte 60.000 bisitari baino gehiago erakarri dituen museoa kudeatzen du.

Soinuenea Fundazioak musika herrikoiaren entzunezko eta ikus-entzunezko ekoizpen eta argitalpen lan handia egin du.

Soinuenea Fundazioaren webgunean, Juan Mari Beltran bildumaren eta Jose Mariano Barrenetxea folkloristaren 25.000 dokumentu eta soinu-instrumentu kontsulta daitezke.



Nafarroako Abesbatzen Elkarteak 1988. urtean sortu zen. Sakonki sustraitua den tradizioa baita, Nafarroako abesbatza guztiak batzea zuen helburu.

Sortzetik, helburu argi eta zehatzak finkatu zituzten: publikoari kantuaren maitasuna transmititu eta etorkizuneko kantariak formatu. Erregulariki konferentziak, "master class" desberdinak eta konposizio lehiaketak antolatu dituzte. Bestalde, argitalpen tekniko eta eduki pedagogiko eta kulturalerako grabaketak egin dituzte.

Atzoko eta gaurko musika koralaren pasioz, pertsona batzuen lan porrokatu eta eskuzabalari esker, Nafarroako Abesbatzen Elkarteak bere helburuen inguruan 3.000 kantarik osatzen dituzten 70 abesbatza biltzen ditu.

laguntzailea:



TXILIBITA FANFARREA "Hernani" Musika Eskola Publikoko ikasleek osatzen dugun taldea gara, 2009.ean sortua. Gurean, xirula eta dultzainen tankera-ko euskal soinu tresna herrikoiek bat egiten dute akordeoi, saxofoi, bonbardino eta perkusioekin, txaranga berezia osatuz. Tankera honetako fanfarre edo musika taldeek arrakasta handia izan zuten 70-90 hamarkadatan Euskal Herriko dantza talde ezberdin eta askoren inguruan: Donostiako *Argia*, Iruñeko *Ortzadar* edo Pasaiko *Alkartasuna* erreferente garrantzitsu izan zaizkigu beste askoren artean (ezin ahaztu nafar hiriburuko *Xut fanfarrea*, noski).

Lehenago Donibane Garazin *Ramuntxo orkestrak* egiten zuen eran, festak alaitzeaz gainera, herri dantzei musika jartzea izan dute helburu nagusi era honetako fanfarreek, eta hots berezia, pertsonala ia, lortu izan dute halako soinu tresnen nahaste bitxia osatuta. Horrek erakarri gintuen haseratik, gure herri musika lantzeko formato ireki eta aldi berean egonkorra eskaintzen zigulako.

Jauzi edo muxikoak, plaza dantzak, sueltokoak eta kalejiran herria alaitzekoak dira nagusi gure erreperatorioan, beti euskal musika tradizionalari (dantzarakoari bereziki) lehentasuna emanaz.

OIARTZUNGO HERRI MUSIKA ESKOLAKO BIOLIN TALDEA

Oiartzungo HM eskolak bere ibilbidea 1990eko hamarkadako azken urteetan hasi zuen txalaparta ikasi nahi zuten hiru ikaslerekin.

Orduz goertzik bere eskaintzara alboka, xirolarrua, txistua eta danbolina, dultzaina, biolina eta herri perkusioa gehitu dizkio. Zorionez gure artean goroz eta arruntagoa da horrelako soinu-tresnak ikasteko aukera izatea, baino bizi dugun mende honen hasieran eskualdean aukera benetan urria zen. Honek gure eskolara herri ezberdinetako hainbat ikasle ekarri izan ditu: Donostia, Errenteria, Hondarribia, Pasaia, Irun, Hendaia eta abar.

Biolin klaseak Arkaitz Minerrek ematen ditu eta bera da duela ikasturte bat sortu zen Oiartzungo HM Eskolako Biolin Taldearen zuzendaria. Talde honek gure herriko hainbat ekintzetan parte hartzen du, besteak beste, erromeria, kalejira edo topaketa ezberdinetan.



LEINUA

(Hiriburu, Milafranga, Mugerre)

1988an dantzari "ibilkari" batzuk - gehienak Baionako Orai Bat dantza elkartekideak - jantzi osagabe batzurekin heldu ziren herriko etxeak garai hartan utzi zien "aurrefabrikatu" gelara. Hamabost bat dantzariak - gazteenak hogeitaz urte ere ez zituen - adin horretan ohikoa den gogorekin leku hau bereganatu zuten.

Leinua elkarteak sortu zen.

1988-1989ko ikasturtean leku hondatua ongi edertzeari ekin zioten. Bakoitzak pintore, elektrizitategile edo zurgile gisa inprobisatuz aritu zen. Aldi berean, lehenengo kurtosak eman ziren eta dantzari gazte berriek taldea indartu zuten. 1989ko udan, Vierhoutengo Nazioarteko Festibalean (Herbehereetan) parte hartuz bukatu zuten lehenengo urtea.

Geroztik, ekimen gehaigo izan dira. Hona hemen garrantzitsuenetakoak:

- bidai anitz: Hego Korea, Suitza, Espainia, Gales, Kanada, Portugal, Belgika, Suitza, Hungaria, Espainia, Irlanda, Maroko...
- sorkuntza koreografikoak: Nahas Mahas (1999),

Hirubibat (2004), Euskal Urratsak (2006), Euskal Urratsak Ttiki (2007), Naizena Ez Naiz (2007), Sakratua (2010), Leinuruak (2014), Zure Osagarriari (2016), Bi Gehio (2019), Eskuz Esku (2022).

- bi diska: Anaban (2001), Kabalkadak (2009).

Ekimen artistikoez gain, Leinuaren dantzari eta musikariak zuzenean inplikatzeko dira bi euskal dantza federazio lehiakide ohien elkartze-prozesuan. Euskal dantza eta musikaren praktika sozialaren aldeko proiektuak ere garatzen dituzte, batez ere:

- Dantzazpi, Baionako Festen euskal dantzaldi enblematikoa (1991tik),
- Baionako Festen Kantaleon-en sorkuntza Ibaialde elkartearekin batera (1996tik),
- Baionako Festen Karrikaldia (2006tik),
- Hiriburu Dantzan (2023tik).

2011ko udaberrian Leinuak Etorkizuna sortu zuen: ekimen berri honek euskal musika eta dantza prozesu artistiko batean dantzari, musikari, koreografo eta konpositore guztiei irekitzea du helburu. Etorkizuna kolektibotik Bilaka Kolektiboa jaio da.



NOAIN-ELORTZIBARKO MUSIKA ESKOLAKO GAZTE ABESBATZA

(Noain-Elortzibar)

Noain-Elortzibarko Musika Eskolako gazte abesbatza ikasgai osagarri gisa sortu zen, Musika Eskolako jaialdi eta jarduera ugarietan parte hartu duelarik.

Gainera, Nafarroan, Euskal Herrian, Errioxan, Aragoian, Valentzian, Valladoliden eta Madrilen parte hartu du, eta Nafarroako Ganbera Korala, Ateneo, Pablo Sarasate Kontserbatorioa eta Iruñeko Artzapezpikutzan aritu da baita ere.

Bestalde, Nafarroako Koruen Federazioko kide gisa, haur eta gazteen abesbatzak dinamizatzeko proiektuetan aritu da, ADANOren aldeko beste abesbatza batzuekin disko bat grabatu du eta, beste gazte-koroekin batera, Josu Elberdinen *Cantata Per Agrum* estreinatu du, Nafarroan Done Jakue Bidearen omenez.

Baita ere, ALCER, Adona, Juan Bonal Fundazioa, Erronkaribarko Zentroa, Sarrigurengo haur eta gazteen

zentroa, Medicus Mundi eta Bakearen aldeko mezulariak erakundeentzako ongintzako kontzertuetan parte hartu du. Taldeko kide batzuk Nafarroako Ganbera Operako koruko kideak dira. Konpainia horrek hainbat operak eszenaratu ditu Nafarroan, Bilbon, Sevillan eta Madrilen. Pueri Cantores federazioko kide gisa, Erromako LX. Kongresuan eta Madrilgo Gabonetako hainbat ospakizunetan parte hartu zuen.

Musika garaikidearen eta hainbat musikalaren bertsoiak interpretatzen ditu, koreografiekin eta baliabide eszenikoekin batera, baita gabonetako musika, sakroa eta nazioarteko folklorea ere.

2002. urtetik Laura Álvarezek zuzentzen du abesbatza. Proieitu honetan, Garbiñe Sertutxak lagunduko die akordeoilari gisa. Biak Noain-Elortzibarko Julián Gayarre Musika Eskolako irakasleak dira.



HIRURAK BAT

Ikuskizunaren egitaraua

Programme du spectacle / Programa del espectáculo

Noain: Coro Juvenil de la Escuela de Música de Noain y Garbiñe Sertutxa

Leinua: Leinua Dantza Taldea

Txilibita: Hernani Musika Eskolako fanfarre eta txistulariak eta Oiartzungo biolin joleak

Noain, Leinua, Txilibita:

1- Agurra [Herrikoia, Gipuzkoa]

Noain:

2- Nerea izango zen [Mikel Laboa. *Mold. Javier Busto*]

3- Aurora a Santiago [Herrikoia. *Mold. Josu Elberdin*]

4- Xalbadorren heriotzean [Xabier Lete. *Mold. Juncal Guerrero*]

Leinua, Txilibita

5- Gabota [Herrikoia, Zuberoa]

6- Godalet dantza [Herrikoia, Zuberoa]

Txilibita

7- Orripekua eta arin-arina [Juan Mari Beltran]

8- Astiasaranenak (kalejira) [Herrikoiak – errep.: Astiasaran anaiak]

Leinua, Txilibita

9- Fandangokil: Zuriñe [Leinua]

10- Makil Ttiki [Herrikoia, Lapurdi]

11- Zuberoako Makil Dantza [Herrikoiak, Zuberoa]

12- Makil Ttiki Berri [Bittor Corret]

Noain

13- Alegría sanferminera [Manuel Turrillas]

14- Ixil-ixilik [Herrikoia. *Mold. Luis Elizalde*]

Leinua, Txilibita

15- Arkuak [Herrikoia & Leinua]

Txilibita

16- Saibururena [Herrikoia]

17- Patxi (kalejira) [Herrikoia – errep.: Maurizio Elizalde]

Noain, Leinua, Txilibita

18- Andre Madalen (fandangoa) [Herrikoia]

19- Neskazaharrak (arin-arina) [Herrikoia]